

Gazte migranteak: Parte-hartzea, bizikidetzeta eta emantzipazioa

ONDORIOAK

Andrea Ruiz Balzola
Begirune Fundazioa

Altua-itsusia-polita-beltza-zuria Zer axola dio?
Hemendik ehun urtera guztiok burusoil lurpean, ezta?
Erreparaiezu haurrei, haiek badakite zertan den jolas hau, giza arraza arragoa baita
Honetan edertasuna ikusi ezin duenak ez du merezi eguzkia ikustea, lagunari pasako diot
txanda
mundu berri honetarako maitasunaren garaipena beldurraren aurka
[Rapa arrazakeriaren aurka - El Chojin](#)

Gaur egun, gazteen migrazioak dinamika eta arazo bereziak dakartza berekin, eta horiek agerian jarri behar dira, prozesu horiek ulertzen laguntzeko eta ahalik eta erantzun egokiena emateko. Kontua ez da beti erraza, "gazte migratzaileen" kategoria berak egoera ugari eta oso desberdinak biltzen baititu. "Gaztea" kategoria bera ere, Raúl Hernándezek bere txostenean azaldu duen bezala, problematikoa da, kontuan hartzen badugu gure gizarteetan esanahi berriak hartzen dituen eta prozesu demografiko, ekonomiko eta sozial berrietan egokitzen den kategoria dela.

Raulek zioen, Carles Feixa aipatuz, gaztaroa mendekotasunaren eta mendekotasunik ezaren arteko pauso-erritua bazen, *impasse*-erritu bihurtu dela gure egungo gizartean. Faktore askok dute eragina gaur egungo eraldaketetan, eta eragina dute, halaber, "gaztea" den horretaz dugun ikusmoldean: bizi-itxaropena luzatzea; Europan gero eta oinarri estuagoa duten biztanleria-piramideak; Espainia hustua, baina batez ere gaztez hustua, eta abar.

Maila globalean, erregimen demografikoak desberdinak dira herrialdeen eta kontinenteen artean, biztanleria oso zahartua dugu mendebaldeko herrialdeetan eta biztanle gazte asko kapitalismo globalaren mendeko periferia osoan. Horren harira, Afrikako kontinentea aipatu da, eta Raulek ohartarazi digu batzuetan baikortasun handiegia dagoela gure herrialdean, eta Afrikako migrazioa salbazio-taula gisa hartzen dela Europako mendekotasun-tasarako. Migrazioak arindu ahal izango du, baina ez du inola ere Europako demografia salbatuko.

Raulen azalpenean oso interesgarria izan da Ulrich Beck soziologoak bere garaian proposatu zuen **belaunaldi globalen** kontzeptua berreskuratzea. Gazte guztiak lehen aldiz orainaldi komun batean bizitzen ari direla oinarri hartuta garatu zuen kontzeptu hori. Gainera, soziologo alemaniar horrek **arrikuaren gizarte** deitu zion horretan sartuta daude belaunaldi global horiek; gizarte postindustrial, arrazionalizazio teknologikoaz eta lan/enplegu aldaketek gain, aldaketak dakartzana eguneroko bizitzetan, bizimoduetan, maitatzeko moduetan, botere-egituretan, errepresio eta parte-hartze politikoko moduetan, errealtatearen pertzepzioan eta abarretan.

Belaunaldi globalen kontzeptuaren berezitasunetako bat da globalizazioaren fokua ez duela Erasmus ikasleengan jartzen, gazte migratzaileengan baizik. Gazte aktiboak, ez mendebaldekoak, desberdintasunaren aurka matxinatzen direnak estatu-nazioen mugak zeharkatuz, berdintasunaren aldeko aldarrikapena eginez. Alde horretatik, azpimarratzekoa da Raulek gazte horiek duten **agentzia-gaitasunari** eman dion enfasia. Hau da, gazteak eragileak dira, estrategiak garatzen, erabakiak hartzen eta jarduten duten subjektuak dira.

Hala ere, gazteen agentzia-gaitasun hori, Raulek esan zigunez, mugatu eta murriztu egiten da gazteak bi ikuspuntu antagonikotatik begiratuta hartzen eta tratatzen direnean: gazteak, edo subjektu arriskutsuak dira edo subjektu tolesgabeak dira. Era berean, agentzia-gaitasun hori murriztu egiten da, baita deuseztatu ere, gazte-talde batzuek "defizita" dutela uste badugu. Ideia hori *kultura-defizitaren* teoriatik dator. Teoria hori hirurogeiko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan, gutxiengoetako ikasleen (autoktonoak edo migratzaileak) eskola-porrota azaltzen saiatzeko. Oro har, porrot hori arraza-faktoreei egotzi zien, eta, ondoren, kultura- eta hizkuntza-urritasunei, patologikotzat eta eskastzat jotzen zen sozializazio primarioaren ondorioz.

Hortik aurrera, hiru etnografia aurkeztu dizkigu, eta, besteak beste, erakutsi digu zer arazo sortzen diren saiatzen bagara gazteak ulertzen eta gazteekin lan egiten aurreko paragrafoan deskribatu dugun esparru horretatik abiatuta. Lehen etnografiak joko informalean kokatu gaitu saskibaloiko kantxa batzuetan, non agerian geratu den nerabeek gaitasuna dutela jokoan arau inklusiboak sortzeko, adinaren eta generoaren mugak zeharkatuz. "Okerra da pentsatzea gehiengoak egiten duenak ez duela azalpenik behar" zioen Sutcliffek; eta, horren harira, Raulek azaldu digu, klase ertain-altuetako gazteentzako prozesu terapeutikoen bidez modelatu nahi zela desegokitzat jotzen zen gazteen *habitus*, batez ere nazioarteko adopzioetatik etorritako gazteen kasuan. Azkenik, hiri-auzo bereizi batera eraman gaitu, non aisialdi hezitzaileko bitartekoen funtzioa zen espazio mugatu batean barneratzea eta edukitzea gazteak eta nerabeak.

Amaitzeko, Raulek azpimarratu zuen, gazteak subjektu arriskutsu eta defizitaren eramailatzat hartzean sortzen den harreman ia mekaniko horren ondorioz, instituzioak *continuum* batean kokatzen direla gazteekiko, gazteak moldatu nahian eta gazteei eutsi nahian. Hori guztia testuinguru neoliberal batean, gazteak eta nerabeak presionatzen, ebaluatzen eta hautatzen dituen, fikzio meritokratikoaren ildotik eta gero eta lehia handiagoa dagoen testuinguruan.

Gazteen Euskal Behatokiko Miren Bilbaok eta Ikuspegiko Arkaitz Fullaondok Euskadiko gazte migratzaileen panoramika eskaini digute. Ez ditugu hemen jasoko eman dizkiguten zifrak; izan ere, horietako asko publikoak dira, baina bai bi hizlariak haietatik ateratako ondorioetako batzuk. Gazteen Euskal Behatokiak Gazte migratzaileekin egindako iritziz-inkestatetik honako hau nabarmendu behar da:

- Gurasoek beren adinean zuten egoerarekin alderatuta, askoz hobea da gazteek euren egoeraz egin duten balorazioa, eta nolabaiteko baikortasuna dago beren egoera pertsonalak etorkizunean izango duen bilakaerari dagokionez.
- Gazte migratzaileak bi alderditan ez dira gustura sentitzen Euskadin jaiotako gazteekin alderatuta: eskura duten dirua eta lan-egoera.
- Ikasitakoarekin zerikusirik ez duten lanpostuak eskuratzen dituztela uste dute.
- Zailtasun handiagoak dituzte alokairua kudeatzeko hipoteka-kredituak lortzeko.
- Hamar migratzaile gaztetik sei diskriminatuta sentitu dira jatorriagatik.

Bestalde, Arkaitz Fullaondok azpimarratu zuen garrantzi handia duela euskal eskola-sistematik igaro diren gazteak gero eta gehiago izateak; izan ere, datu adierazgarria da hori, besteak beste, kontuan hartzen badugu eskola-sistemak eginkizun garrantzitsua duela atzeritar jatorriko biztanleen integrazio-prozesuetan. Gazte migratzaileek harremanen esparruan zailtasunak eta arazoak dituztela erakusten dute bildutako datuek. Hala ere, ez dira hain garrantzitsuak gazte migratzaileen pertzepzio subjektibotik. Gai hori lotuta egon daiteke Raulek bere esparru-txostenean aurreratu duen ideiarekin: gazte migratzaileek aukera bat ikusten dutelako migratzen dute, zerbait egiteko une egokia dela pentsatuta. Hipotesi bat egin dezakegu beraz horrekin loturik, hauxe da, gazte horiek abiapuntu duten aukera-esparru horrek asko murrizten duela aurrez aurre dituzten arazoei buruzko pertzepzio subjektiboa.

Arkaitzek bere hitzaldian nabarmendu duenez, askotariko harremanak dituzte gazte migratzaileek, hau da, badute harremana Euskadin jaiotako gazteekin. Beraz, hortik birplantea dezakegu hain zabaldua dagoen estereotipo hori, pentsatzen baitugu beren artean soilik erlazionatzen direla gazte migratzaileen taldeak. Gainera, euskal gizartean integratzeari buruzko pertzepzio subjektiboa gero eta handiagoa da denboran zehar.

Goizeko saioa bukatzeko "Begirada gaztea migrazioari" mahai-ingurua izan dugu honako parte hartzaile hauekin: Jorge Correa eta Reda El Hasnaoui (Harresiak Apurtuz), Asmae Ourdi (soziologoa eta tokiko ekintzailea) eta Iratxe Uriarte (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua). Lehenik eta behin, belarritik tiratze txiki eta maitekorra egin behar dugu, soziologoei eta antropologoei entzun ondoren, mahai honekin "hasiko gara errealitateari buruz hitz egiten" ideiarekin planteatu izanagatik mahaia. Zientzialari sozialak errealitatean daude sektore teknikoa eta hirugarren sektoreko eragile ugariak bezala. Esan dezakegu denok dihardugula errealitatean eta errealitatearekin, plano eta leku desberdinetatik, eta errealitatearen onerako hobe genukeela elkarri entzutea lankidetzaren logikan.

Nolanahi ere, mahai honetan hainbat gizarte-eragile izan ditugu arazo oso zehatzak adierazten. Esan dezakegu, oro har, harrera-politika integrala dei geniezaiokeena eskatu

zaiela erakundeei. Politika horretarantz aurrerapauso garrantzitsuak egiten ari dira Euskadin, baina ziur asko ez dituzte asebetetzen eguneroko bizitzan Redak bere esperientziaren bidez adierazi duena bezalako muturreko egoerez arduratu behar dutenen itxaropenak. Balio bakarra duen egoera berezia, behin eta berriz salatu beharrekoa. Baina ez dugu ahaztu behar kasu berezi batek ez duela agortzen errealitatearen deskribapen egokia. Eta errealitatearen deskribapen oso ona behar dugu politika oso onak diseinatzeko, deskribapen on eta egoki batekin hastea ezinbesteko oinarria baita zentzuz orokortzeko.

Amaitzeko, eta mahai honetan hainbeste aipatu denez, esan behar dugu deigarria dela, bai erakundeen aldetik, bai esku-hartze sozialaren mundutik, ez definitzea harrera zehazki zer den, nola mugatzen den, zer hartzen duen barne eta zer ez. Pentsatu beharko dugu harrera-politika integral hori lortzeko bidean terminoa eraginkorra izan dadin, denon artean adostu beharko dugula zertaz ari garen, eta adostasunera iritsi beharko dugula, kontzeptu zorrotz eta argia izateko.

Jardunaldiko bigarren goizean, bi mahai-inguru izan ditugu: lehena, erronkei eta aukerei buruzkoa, honako parte hartzaile hauekin: Unai Zabala eta Anis Touzane (Trapezistak programa), Maïmuna Fofana eta Itziar Gorostidi (SOS Arrazakeria Gipuzkoa) eta Ruth Martínez eta Mouaad Nekhlaoui (Harribide Fundazioa); eta, bigarrena, parte-hartzeari eta bizikidetzari buruzkoa, honako parte hartzaile hauekin: Zouhair Nmar eta Jair Gamboa (Namasté proiektua, Caritas Bizkaia), Álvaro González eta Iker Urbieta (Gazte Sarea - Alboan) eta Ane Pedrouzo (Hiretu Hiria programa, Gasteizko Udala). Bietan, hainbat migratzaile gazteren ahotsa entzun ahal izan dugu. Gazte horiek beren bizipenak azaldu dizkigute, eta, gainerako hizlariekin batera, gai jakin batzuk planteatu dizkigute. Horiek laburbiltzen saiatuko gara ondoren.

Esan dezakegu hiru dimentsio planteatu direla mahaietan. Lehenengoan, gizarte-erakundeek eta entitateek garatzen dituzten programen elementuak, gakoak eta erronkak aipatu dira. Nabarmendu behar da ibilbide pertsonalizatu integralak diseinatzean eta lantzean eman zaion garrantzia, protagonismoa gazteena izanik, eta,aldi berean, prozesu indibidual horiek elkarrekin gurutzatzen eta sostengatzen diren dimentsio kolektiboa. Indartsu agertzen den bigarren dimentsioa da egiturazkoa dei genezakeena, atzerriartasunaren eta erregularizazio-prozesuen arloko esparru juridikoa, etxebizitza eskuratzea, prestakuntza eta errolatzea baititu mintzagai.

Azkenik, badago hirugarren dimentsio bat, bizikidetzaren eta parte-hartzearen arloari buruzkoa, non nabarmentzen den euskal gizartearekin lan egiteko beharra dagoela, dituen estereotipoek eta aurreiritziek eragotzi eta oztopatu egiten baitute desberdinen arteko bizikidetzatza. Bereziki, gazte magrebtarrei buruz gure gizartean sortu den irudi estigmatizatua lantzeko beharra azpimarratu da. Azkenik, planteatu da hainbat gune lantzen jarraitu behar dela Euskadiko gazteek, gazteak izateagatik eta beste gogoeta batzuk alde batera utzita, elkar ezagutu, lagunak egin, begiradak trukatu, egitura komunak eraiki eta abar egin ahal izateko.

Beste gai bat ere azpimarratu behar dugu, jardunaldi honetako mahai guztietan agertu baita: gazte migratzaileen osasun mentala eta emozionala. Arazo horrek, noski, ez die migratzaileei bakarrik eragiten, eta baliabideak eta arreta profesionalizatua eskatzen ditu premiaz.

Jardunaldietan parte hartu zuten gazte migratzaileek zer-nolako etorkizuna imajinatzen duten azalduko dugu amaitzeko. Etorkizun horretan, pertsona autonomo eta independente gisa ikusten zuten beren burua, lanpostu fidagarriekin eta botoaren bidez beren gizartean parte hartzen. Atzerritar jatorriko biztanleekin lan egin behar da euskal gizartera egokitzeko prozesuetan, eta arrazakeriaren aurkako hezkuntza proposatu behar zaio euskal gizarteari, egiaz kulturartekoa izango den bizikidetzaren berrirako oinarriak ezartzeko.